

## ABONO EGOKITUA



### 8. JARDUERAK

Laborategia San Markos zabor gunean kokatuko dugu han daudelako gure abonoa sortzeko baliabideak (material edo zabor organikoa) eta horrela, ez dugu baliabideen garraioan hainbeste diru gastatuko.

Gure lokala, Errenteriako industriagunean ezarriko dugu, izan ere, gure laborategia gertu daukagu eta inguruan nekazari asko daude. Honek guztiak, gure garraioan gastatuko dugun kostua murriztuko du.

Lokala, makineria eta laborategia erosi edo alokatu kostuetan erabakiko dugu errentagarritasun atariaren bidez.

Gure enpresaren web orrian gurekin harremanetan jartzeko telefono bat egongo da eta hortaz aparte, "ohiko galderak" izeneko sail bat egongo da bezeroek dituzten galdera gehienak argitzeko, baina, hala ere, beraien galderak web orrian argituak ez baldin badaude, guri deitzeko aukera izango dute nahi dutena galdetzeko eta beraien zalantzak argitzeko.

Bestalde, gure bulegoan telefono deiak hartu, korreo elektronikoaren bidez bidaltzen dizkiguten mezuak erantzun, abonoa bezeroengana iritsi bitartean gordetzeko biltegi txiki bat... izango dugu.